

# TXEPETXA

GERNIKAKO EKOLOGI LAN TALDEA

**BOLETIN DE INFORMACION ECOLOGICA Nº1**

Urtero hainbat eta hainbat txori insektujaleak axolagabeko eskuetan, eskupetak, tximberak eta edozein harrapagailu klase erabiliz, geienetan jolas bat izango balitz moduan, hiltzen diren bitartean, baserritar asko kexatu egiten dira insektu izurriak beraien uztak arriskuan jartzen dituztelako.

Baina inor ez du pentsatzen txorien urritasuna eta intsektuen ugaritasuna erlazionaturik daudela. Ez dugu askorik pentsatu behar, jakina da denontzat, intsektuak, txori intsektujaleen janari bakarra direla eta txoriak desagertzen diren neurrian intsektuak gero eta gehiago izango direla, arazo neurrigabeko bat sortuz: Nola amaitu intsektu hauekin ? Bururatzen zaigun gauza bakarra zera da: intsektilkariak erabiltzea. Baina arin frogatzen dugu igaz intsektilkari ona izandakoak, aurten ez duela ezer egiten intsektuak erresistenteak bihurtu direlako.



Hau dela eta ateratzen dugun soluzio bakarra, dosis haundiagoak eta intsektilkari gogorragoak, haien arrisku gradua jakin barik, erabiltzea da.

Baserritarrek, edozein intsektilkari, edozein neurritan erabil dezatela pentsatzen dute eta ez dira konturatzen desinfekzioak eta desinsekzioak lurrean dagoen bizitzarekin amaitzen dutela eta beraz ondoen erasoaren aurrean defentsa barik uzten dituztela. Hortik aparte beti egon beharko dira lur horiek desinfektatzen eta ez hau bakarrik, gero lur horietatik ateratako uztak ere, urtearen zeharkontsumitzeko badira, kontserbanteren batekin tratatu egin beharko dira. ( Gernika aldean indabekin gertatzen dana).

Beste herri batzuetan arriskutzuak direlako debekatuta daudan produktu batzuk, oraindik ere Euskal Herrian saldu egiten dira.
Estatu batuek adibidez pestizidetan milloi terdia baino gehiago esportatzen dute, U.S.An bertan eta Ekialdeko Herrietan debekaturik egon arren.

Hau dana aurrean eukita, gure buruari galdetzen diogune zera da: Zergaitik ordaintzen dugu hainbeste diru produktu hauek erosteko, gehienetan alferrik, txoriak izanik intsektilkaririk onenak ?.

Galdera honen erantzuna guk pentsatzen dugun baino errexa izan daiteke: noski, txoriekin inor ez da inoiz aberastu, baina intsektilkari horien atzean diru mordoa mugitzen da. Honekin ez dugu esan nahi hemetik aurrera eta bapatean ez dugula intsektilkaririk erabili behar, baiziketa beharrezkoak diren kasuetan bakarrik eta beti gizonarentzat arrisku gutxien duten eran erabili behar dituguła.

Honen ordean txorien defentsa eta babes politika bat aurrera eroman behar da. Horretarako erakunde ofizialen kolaborazioa beharrezkoa dela uste dugu. Batera exijitu behar diegu teorian txori intsektujaleak babesten dituzten legeak bete eresi ditzatela. Baita ere eskola eta institutuetatik hasiz sensibilizazio-kanpainak egitea.